

Hizkuntza aniztasuna ondare gisa UNESCO-ren ekimenetan. Euskal Herriak begiratu bat

(Multilingualism as an Heritage in UNESCO's initiatives. A view from the Basque Country)

IDIAZABAL, Itziar

Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Hizkuntzalaritza eta Euskal
Ikasketen Saila. Avda. de las Universidades, 5.
01006 Vitoria-Gasteiz
itziar.idiazabal@ehu.es

Komunikazio honetan UNESCOk hizkuntza aniztasuna zaindu eta garatzeko hartu dituen erabakiak eta bultzatu dituen zenbait ekimenen berri emango da. Bestalde, Euskal Herriko eleaniztasunari begiratzen zaio, nagusiki etorkinek ekarri dituzten hizkuntzak kontuan hartuz.

Giltza-Hitzak: UNESCO. Eleaniztasuna. Arriskuan diren hizkuntzak. Heziketa eleanitza. Etor-kinen hizkuntzak. Ama-hizkuntza.

En esta comunicación se dará cuenta de los acuerdos adoptados y de diversas iniciativas apoyadas por la UNESCO para preservar y desarrollar la diversidad lingüística. Por otra parte, se contempla el multilingüismo de Euskal Herria, tomando en consideración, principalmente, las lenguas aportadas por los emigrantes

Palabras Clave: UNESCO. Multilingüismo. Lenguas en peligro de desaparición. Educación plurilingüe. Lenguas de los inmigrantes. Lengua materna.

Cette communication reprendra les accords adoptés et les diverses initiatives soutenues par l'UNESCO pour préserver et développer la diversité linguistique. Par ailleurs, l'article examine le multilinguisme du Pays basque, étant donné les langues dont les migrants sont porteurs.

Mots Clés: UNESCO. Multilinguisme. Langues en danger de disparition. L'éducation pluri-lingue. Langues parlées par les immigrants. Langue maternelle.

1. SARRERA

UNESCOn helburuak munduan zehar kultura, hezkuntza eta zientzia eskubideak eta ondarea zaintzea eta garatzea izanik, erraz ulertzen da hizkuntzaren, hobeto esanda, hizkuntzen ardura bere gain hartzea. Alabaina, hizkuntzak, eta hiztun komunitateak ez dira UNESCOn arduen artean izan kasik XXI mendera arte. Egun, 2008a Mundu mailako Hizkuntzen urtearen izendapena, eta 2009an argitaratu berri den Arriskuan diren munduko hizkuntzen atlasaren¹ edizio berri eta interaktiboak, badirudi, hizkuntzak UNESCOn ardu nagusien artean sartzea adierazten duela. Egia da Atlas horretan, lehenago, 2001ean Wurm ospetsuak argitaratutakoan bezala, ez direla beti-beti zehaztasunez gauzak esaten. Barreñak (2003) Atlas ezagun horren erreseinan ondo esaten zuen bezala, Espainian euskararen egoera eta leoneraena parekatzea ez da inondik ere zuzena, eta bestalde, badirudi hizkuntzen egoera aztertzerakoan momentu jakin batean parametro batzuek (hiztun kopurua, familiako transmisioa, eta abar) kontuan hartzeaz gaina hizkuntza horren egoerak azken urteetan izan duen prozesua begiratzea ezinbestekoa dela, eta bilakaeraren kontua ez da ondo irudikatzen atlasetan.

Lan honetan, eta hasteko, UNESCOK hizkuntza aniztasunaren, eta arriskuan diren hizkuntzen biziraupenaren alde (edo ez hain alde) hartu dituen erabaki eta bideratu dituen ekimen garrantzitsuenen oroigarria egingo da, berrietan esaten dena eta esan gabe uzten dena ere laburbilduz. Ondoren, Euskal Herrian, eleaniztasuna zertan datzan ezagutze aldera, etorkinen hizkuntzen inguruan UNESCO Etxeak, Ikuspegik eta Hizkuntzen UNESCO Katedrak berak burutu duten ikerketa eta argitarapenetik (Urangea et al., 2008a, 2008b) zenbait datu esanguratsu izango ditugu hizpide, eta bukatzeko egoera honek irakaskuntza eleanitzari ekartzen dizkion erronken inguruan gogoeta laburra egingo dugu.

2. UNESCOn EKIMENAK MUNDUKO HIZKUNTZA ONDAREAREN ALDE

Hizkuntzak, hizkuntza guztiak ukiezinezko ondare bezala onartzea ez da betiko kontua UNESCOn dokumentuetan. Erakundearen sorrera dokumentuan (1945) apenas agertzen den hizkuntza hitza. Kultura, Hezkuntza eta Zientzia, jakina, hizkuntzaren bitartez gauzatzen dira, eta hizkuntza, esan gabe doan bitartekoa da. Zein hizkuntza erabili aukeratzea ordea beste kontu bat da. UNESCOn eleaniztasuna betiko erronka (eta arazoa?) da, jakina, beste nazioarteko erakunde guztiena den bezala. Baina hemen bere-berea duen edukia da hizkuntza. Konpromisoak eta ahaleginak egon dira eta badaude. Horien artean UNESCOn Korreoa Aldizkaria izan daiteke aztergai interesgarri bat. Aldizkaria 1947an sortu zen eta 50 urte baino gehiagotan hizkuntza ezberdin gehien erabiliz argitaratu izan den aldizkari ezaguna izan da. Garai batean 32 hizkuntzetan argitaratzen zen, tartean euskaraz. Gaur, internet sarean aurki dezakegu baina orain UNESCOn sei hizkuntza ofizialetan bakarrik kaleratzen edo sareratzen da; alegia, frantsesez, ingelesez, espainieraz, errusieraz, arabieraz eta txineraz. Badirudi, noizbehinka paperezko eta beste hizkuntza batzuetan ale batzuk argitaratzen dituztela, baina hauek salbuespenak lirarteke. Azken zuzendari orokorrak (Koichiro Machuura) hainbat aldaketa eztabaidagarriren artean erabaki zuen Korreo, aipatu

1. UNESCO Atlas of the World's Languages in Danger

aldizkariaren paperezko, eta beraz benetan eleanitza zen agerkaria bertan behera uztea. Erabaki honek hizkuntza aniztasunari ekarri dion kalte nabarmena leku batean baino gehiagotan salatu izan da².

UNESCOren, eta bereziki azken zuzendari orokorraren mandatu pean hizkuntza aniztasunaren kontra hartutako beste erabaki bat ere aipatu nahi nuke. Zuzenean ukitzen bainau. UNESCO Etxearen eraginez, Eusko jaurlaritza eta Pariseko UNESCO erakunde nagusiaren artean Lankidetzarako Memoranduma (1997/06/23) sinatu zen Munduko Hizkuntzen Txostena egiteko, eta akordio horrek zekarren txostena egin eta ebaluatu ostean UNESCOk berak argitaratzeko adostasuna. Txostena, nazioarteko hainbat adituren gidaritzapean eta partaidetzarekin egin zen, baina UNESCOk, nahiz eta berak txostenari egindako iruzkinak onartu ziren, geroago, beste baldintza batzuk inposatu zituen, eta txostenean agertzen ziren hainbat azterketa ezabatzea eskatzen zuen. Ezabaketa horiek Nazio batuetako partaide batzuen zentsura ziren; tartean, Frantzia bera, Txina eta beste estatu batzuek ez zituzten onartzen txostenean ageri ziren nazio horietako hizkuntza egoeraren salaketak. Ondorioz, egileok beste bide batetik argitaratzea erabaki genuen (Ikus Marti et al. 2005, 2006).

Egia da, nolahi ere, eta bereziki 2000 urtetik hona, aldarrikapen aunitz egin direla UNESCOn hizkuntza ondarea zaindu beharrari buruz, eta ikerlanak bideratzeko ere babes geroz eta handiagoa aurki daitekeela UNESCOren ebazpen eta adierazpe-
netan. Azken zuzendari orokorraren aipu bat adibidetarako:

La desaparición de una lengua conduce a la desaparición de varias formas de patrimonio cultural inmaterial y, en particular, del legado invaluable de las tradiciones y expresiones orales de la comunidad que la habla, que incluye poemas y chistes, proverbios y leyendas. Asimismo, la pérdida de los idiomas indígenas va también en detrimento de la biodiversidad, porque las lenguas vehiculan numerosos conocimientos tradicionales sobre la naturaleza y el universo (Koichiro Matsuura, 2008, UNESCOren Batzar Nagusiaren irekitze ekitaldian)

UNESCOk plazaratu dituen ebazpenen artean, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna, otsailaren 21a izendatu zen 1999ko batzar orokorrean, eta 2000 urtetik aurrera ospatzen da egun hori. Nazioarteko egun, edo hobeto esanda urteen artean, gogoratu behar da baita ere, 2008a izan zela NEO (UN) erakundearen aginduz hizkuntzen urte bezala izendatua, eta UNESCOk bereziki ospatu zuela urte hori hainbat ekimenen bitartez³.

Ondoko aipua, 2008, hizkuntzen urtea izendatzea erabaki zen ekitaldian esandakotik hartua da, eta adierazpen mailan bederen hizkuntza aniztasunaren aldeko ardura nabaria da.

Growing recognition of the essential place held by languages in the social, economic and cultural life of our societies. Linguistic diversity is inseparable from cultural diversity. It is through their language that people build, apprehend and express their emo-

2. Ikus Gabriele Capa (2009) *Reuelta silenciosa para salvar a la UNESCO, Le Monde Diplomatique en español* (2009, urria).

3. Tartean, Eusko jaurlaritzaren laguntzaz eta UNESCO Etxeak eta Hizkuntza Ondarearen Katedrak berak lagunduta antolatu ziren Immigrazio Hizkuntzen inguruko kongresua (2008, maiatza), Globalizazio Garaietan euskara eta immigrazio hizkuntzen kongresua (2008, urria), eta "El futuro de las lenguas" (Uranga eta Maraña, 2008) liburuaren argitalpena, 2008 urteko gure ekimenak ere aipatzearen.

tions, their intentions, their values and their conceptions of the world. [...] Language helps to shape individual and collective identity.

It is estimated that, in few generations, more than half of the 7000 languages might have disappeared. "We must act urgently," said Mr Matsuura, "the costs of losing linguistic diversity are high and may jeopardize international cooperation to promote sustainable development, and the achievement of the Millennium Development Goals and Education for All goals." The Director-General therefore called for the development of language policies that enable each linguistic community to use its first language, or mother tongue, as widely and as often as possible, including in educational, administrative and legal contexts. "Only if multilingualism is fully accepted as an invaluable asset can all languages find their place in our globalized world (Koichiro Matsuura, 2007).

Nazioarteko egun edo urteen ospakizunetaz gain UNESCOren adierazpen eta gomendioak beti dira garrantzitsuak erreferentzia bihurtzen diren heinean. Oso gainetik bederen, ikus ditzagun 2000 urtetik hona UNESCOk hizkuntza aniztasunarekin loturik hartu dituen hainbat erabaki.

2.1. Kultur Aniztasunaren Adierazpen Unibertsala (Universal Declaration on Cultural Diversity, 2001)

Hizkuntza aniztasunaren ardurak agerian jartze aldera, XXI. Mendea UNESCOk aldarrikapen testu honekin abiatzen du, eta bertan kulturaren sar ditzakegun eduki guztiez arduratzen da. Adierazpen honen barruan bada ekintza plan baterako "oinarrizko le-roak" deitzen den lehentasun zerrenda bat, eta bertan, 5.a eta 6.ak dira zuzenean hizkuntzei dagozkienak. Bosgarren lerroan, hau esaten da: gizateriaren hizkuntza ondarea zaintzea eta ahalik eta hizkuntza gehienetan adierazpena, sormena eta zabal-kundea bultzatzea. Seigarren lerroak zera dio: Hizkuntza aniztasuna sustatu, hezkuntza maila guztietan ama-hizkuntza errespetatuz, ahal den guztietan, eta eleaniztasunaren ikas/irakaskuntza adinik goiztiarrean bultzatu. Hamargarrenean, bestalde, hizkuntza aniztasuna sustatzea aipatzen da espazio numerikoan, eta dohaineko sarrera unibertsala garatzea munduko sare guztien bitartez eta publikoak diren alor guztietan.

2.2. Ukitu ezinezko Ondare Kulturala zaintzeko Hitzarmena (Convention for the Safeguarding of the Intangible Cultural Heritage, 2003)

Ebazpen honetan bereziki ahozko tradizioaren adierazpenak, eta tartean hizkuntza bera dira zaindu beharrekoak, ukitu ezinezko ondare kulturalaren bitartekoa hizkuntza bera delako. Balio horiek hezkuntza, ezagutza eta gainerako gaitasunen eraikitzeke ezinbestekotzat hartzen dira, eta ondare hori mehatxatzen duten arriskuetatik zain-tzea eskatzen da.

2.3. Ziberespazioko Sarreretan Eleaniztasunaren Erabilera eta Sustapenari da-gokion Gomendioa (Recommendation concerning the Promotion and Use of Multilingualism and Access to Cyberspace, 2003)

Bereziki garrantzitsua da gomendio multzo hau hizkuntzen aniztasunaz arduratzen bagara. Bertan esaten da, esate baterako, hizkuntza aniztasuna munduko informa-zio sareetako ezagutzak eskuragarri izan daitezen ezinbestekoa dela ziberespazioan

egiten den hizkuntzen erabilera. Teknologiak geroz eta aukera gehiago eskaintzen dizkigunez ahalegin berezia egin behar litzatekeela esaten da zentzu honetara egokitu dadin aipatu aurrerapen teknologikoa. Bertan ageri diren zenbait aholku azpimarratu daitezke: sistema eleanitzak bultzatzea; alorreko ikerketa saio bereziak sustatzea; elkarlanean, beste erakunde internazionalekin batera behatoki bat sortzea, aholku hauek zenbateraino betetzen diren ikusteko, eta eleaniztasunaren bultzatzeko praktika on edo egokiak agertzen direnean ezagutarazteko. Hizkuntzen trataera informatikoaren ahalmenak gogora ekartzen dira, batetik, eta bestetik, hizkuntza sistema geroz eta inteligenteagoak nola posible diren aipatzen da ordenagailuen prozesamendu baliabide handiak eta operatzeko ere geroz eta gaitasun abstraktuago eta sotilagoak izanda aukera berriak daudelarik gogoratu.

2.4. Kultur Adierazpen Aniztasunaren Zaintze eta Sustapenerako Hitzarmena (Convention on the Protection and Promotion of the Diversity of Cultural Expressions, 2005)

Ebazpen honetan, harrigarria badirudi ere, ez da hizkuntzari buruzko aipamen zehatzik agertzen. Kultura adierazpenak zein hizkuntzetan gertatzen diren ez da kontuan hartu oraingoan.

2.5. Herri Indigenonen Eskubideen Nazio Batuen Adierazpena⁴ (United Nations Declaration on the Rights of Indigenous Peoples, 2007)

Aldarrikapen ofizial hau, ohiko sei hizkuntza ofizialez gain beste 22 hizkuntzetan ere argitaratzen da, bertan entzutezko bertsioak ere ageri direlarik (maia eta nahuatl hizkuntzak, hain zuzen ere). Aipagarria da nola aldarrikapen honek ezezko lau estatu botoak izan zituen (Estatu Batuak, Kanada, Australia eta Zelanda Berria), eta beste hamaika estatu abstenitu egin ziren, tartean Kolonbia eta Errusiar Federazioa, adibidez.

Aldarrikapen honetatik 13. eta 14. artikulua itzuliko ditugu, euskarazko itzulpenik ez baita ageri testu ofizialean. Berezi interesgarriak iruditzen zaizkigu hizkuntza askoren biziraupena indartzeko neurri hauek ezagutu eta jakina, batez ere, bete araztea.

Hamahirugarren artikuluan hau esaten da:

Herri indigenak eskubidea dute indarberritzeko, erabiltzeko, sustatzeko eta beaunaldi berriei transmititzeko beren kondairak, hizkuntzak, ahozko tradizioak, filosofiak, idatz sistemak eta literaturak, eta bere erkideko, leku eta kideei bere izenak eman eta mantentzeko.

Estaturek eskubide hori zaintzen dela ziurtatuko dute eta hartarako neurri egokiak hartuko dituzte; baita ere ziurtatuko dute herri indigenak ulertzen dutela eta bere burua ulertarazten dutela ekintza politikoetan, justiziako eta administraziokoetan, eta behar denean, itzulpen eta interpretaritz bitarteko egokiak eskuratuko dituzte.

4. Egun hauetan Garabide erakundearekin dauden Ameriketako "indigena" taldeko lagun guztiek bat datoz 'indigena' hitza iraintzat hartzen dutela esatean. Eurek originarioak direla diote. (Andoni Barreña lankideak eskuratutako iruzkina, 2009/10/28).

Hamalagarrean hauxe da esaten dena:

Herri indigenak eskubidea dute bere heziketa sistema izateko, eta eginkizun horretarako egon behar liratekeen erakundeak ezarri eta kontrolatzeko, bere hizkuntzetan irakasteko, eta bere kulturak heziketa eta irakaskuntzarako sortu dituen metodoak erabiltzeko.

Indigenak, eta bereziki haurrak, eskubidea dute Estatuaren heziketa maila eta forma guztiak inolako diskriminazio barik erabili ahal izateko.

Estatuek neurri aproposak hartuko dituzte herri indigenekin batera, lagun indigenak, eta bereziki haurrak, bere erkidegotik kanpo bizi direnak barne, aukera izan dezaten ahal den heinean behintzat, hezkuntza bere kultura eta hizkuntzan jasotzeko.

Beste artikulua batzuetan aipatzen da komunikabideak ere bere hizkuntzetan garatzeko aukera izan behar dutela herri indigenek.

Oro har, esan daiteke, gaur UNESCON hizkuntza aniztasuna arriskuan dagoen ukitu ezinezko ondare bezala ikusten dela, eta adierazpen, gomendio eta informazio mailan aurrerapauso nabarmenak egin direla mende berria hasi dugunetik hona. Nolanahi ere, hizkuntza aniztasunaren praktika, alegia, ofizialak ez diren hizkuntzen erabilera, eta bereziki hizkuntza gutxituena, ez da praktika arrunta. Adierazpenetako gomendioak gauzatu daitezten gizarte zibilaren ardura ezinbestekoa da; lekuan lekuko egoera ezagutu eta ahal den heinean hizkuntza ezberdinen presentzia erakutsi, azpimarratu, indartu, eta haien kultur-balioa kontuan izanik prestigiatzen ez badira, hizkuntzak ezkutatu (eta desagertu!) egiten baitira berdintasunaren eta gehiengoaren eragin indartsuak jota.

3. ELEANIZTASUNA EUSKAL HERRIAN

Egun eleaniztasuna hitzetik hortzera dabilen kontua da, Euskal Herrian bezala hemendik kanpora ere. Garai batean elebitasuna arazo bezala ikusten zen, eta gaur berriz eleaniztasuna gauzarik arruntena edo desiragarriena bezala agertzen zaigu. Ikuspuntu ezberdinetatik begiratu daiteke, jakina. Bat, gaurko gizartearen aniztasuna begiratzeak dakarren eleaniztasunaren oharzte eta gehien bat, balioztatze ahalegina da; nolabait esateko, soziologia sentiberak ekarriko ligukeen begiradaren ondorioa. Beste bat, eleaniztasuna herritar guztientzat egoera desiragarri bezala aurkezten bada, hezkuntzaren helburu bihurtzea dakar, eta hau da azken batean Europar Kontseiluak 2001 urtetik aurrera eragin nahi duen bilakaera: eleaniztasuna hezkuntzaren helburu eta baliabide nagusi eraikitzeke egitasmo zabaldua (Europako Kontseilua, 2002). Euskal Herrian heziketa elebidunarekin badugu eskarmentua, eta eskola hirueledun edo eleanitz bihurtu nahi izatea zilegi bezain desiragarria litzaiteke, beti ere, bertako hizkuntza ondarearen aurka egiten ez bada, jakina. Aipatutako bi begiratuak kontuan izanik zenbait emaitza eta gogoeta bilduko ditugu lanaren bigarren atal honetan.

3.1. Euskal Herriko hizkuntzak

UNESCO Etxeak eta IKUSPEGIK 2007 urtean egin zuten ikerketaren ondotik, Euskal Herrian immigrazioaren ondorioz, bertako euskara eta gaztelaniaz gain, beste ze hizkuntza aurkitu dezakegun aztertu zen. Euskal Herrian, eta bereziki Hegoaldeko lau

hiriburuetan egindako elkarrizketen bitartez 100 hizkuntzatik gora identifikatu ziren. Ikus ditzagun datu horiek:

1. Taula: Etorkinen jatorria eta identifikatutako hizkuntza kopuruak Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroan (2007) *

	Lagunak zenbakitan	%	Estatuak zenbakitan	Hizkuntzak zenbakitan
Amerika	75.164	48,7	13	5 (9)
Europa	45.414	29,4	24	29
Afrika	27.892	18,1	20	52 (55)
Asia	5.838	3,8	9	14 (17)
Besteak	137	0,1		
	154.445	100,0	66	100

(Iturria: Uranga et al. 2008)

* Kontinenteen araberako kopuruetan, errepikapenak saihesteko, ez dira garai bateko metropolien hizkuntzak jaso: frantsesa, ingelesa, gaztelania eta portugesa. (Parentesi arteko zenbakietan hizkuntza hauek ere jasotzen dira).

Taula honetan ageri diren kopuruak atzean zein hizkuntza gordetzen den jakiteko kontinentez kontinente sailkatu ziren etorkinak eta haien hizkuntzak. Ikus ondorengo taulak. Taula guztiak iturri berdinetik hartu dira: Uranga et al., 2008.

2. Taula. AMERIKAR jatorriko etorkinen artean identifikaturiko hizkuntzak

IDENTIFIKATURIKO HIZKUNTZAK	JATORRIA
Aymara	Bolibia
Guaraniera	Paraguai
Mapudungun	Argentina, Txile
Quechua	Bolibia, Peru
Quichua	Ekuador
Gaztelania	Argentina, Bolibia, Txile, Kolonbia, Kuba, Ekuador, El Salvador, Guatemala, Honduras, Mexiko, Nikaragua, Paraguai, Peru, Panama, Dominikar Errepublika, Uruguai, Benezuela
Frantsesa	Canada
Ingelesa	Canada, Estatu Batuak
Portugesa	Brasil

3. Taula: ASIAR jatorriko etorkinen artean identifikaturiko hizkuntzak

IDENTIFIKATURIKO HIZKUNTZAK	JATORRIA
Bangladesheko arabiera	Bangladesh
Irakeko arabiera	Irak
Bengaliera	Bangladesh
Kantoniar txinera	Txina
Mandarin txinera	Txina
Koreera	Korea
Ingelesa	Irak, Japon
Hindiera	Pakistan, Bangladesh, India
Japoniera	Japonia
Nepalera	Nepal
Pashto	Pakistan
Penjabiera	Pakistan
Saraiki	Pakistan
Serpa	Nepal
Tagalo	Filipinak
Urdu	Pakistan, Bangladesh

4. Taula: EUROPAR jatorria duten etorkinen artean identifikaturiko hizkuntzak

IDENTIFIKATURIKO HIZKUNTZAK	JATORRIA
Alemaniera	Alemania
Armeniera	Armenia
Azerí	Azerbaijan
Bieloerrusiera	Bielorrusia
Bulgariera	Bulgaria
Kalmukera	Errusia
Katalana	Katalunia
Daniera	Dinamarka
Finlandiera	Finlandia
Frantsesa	Frantzia
Irlandako gaelikoa	Irlanda
Galiziera	Galizia

Georgiera	Georgia
Grekeria	Grezia
Hungariarra	Hungria, Errumania, Errusia
Ingelesa	Britania Handia, Irlanda
Italiera	Italia
Lituaniera	Lituania
Mingreliera	Georgia
Nederlandiera	Herbehereak
Polakoa	Polonia, Bieloerrusia, Errusia
Portugesia	Portugal
Romaniera	Rumania
Errumaniera	Rumania
Errusiera	Bieloerrusia, Errumania, Errusia, Ukraina
Serbiera	Serbia
Sueziera	Suetzia
Svaniera	Georgia
Ukraniera	Errusia, Ukraina

5. taula: AFRIKAR jatorriko etorkinen artean identifikaturiko hizkuntzak

IDENTIFIKATURIKO HIZKUNTZAK	JATORRIA	IDENTIFIKATURIKO HIZKUNTZAK	JATORRIA
Akoose (bakossi)	Kamerun	Hausa	Kamerun, Nigeria
Amariarra	Etiopia	Ingelesa	Kamerun, Etiopía, Ghana, Nigeria, Senegal
Argeliako arabiera	Argelia	Igbo	Nigeria
Argeliako arabiera	Maroko	Jola	Gambia
Libiako arabiera	Libia	Kongo (kikongo)	Angola
Marokoko arabiera	Maroko	Bijagoseko kreola	Guinea Bissau
Saharako arabiera	Maroko	Lingala	Angola, Kongoko Errepublika Demokratikoa
Balanta	Senegal	Lyele	Burkina Faso
Bambara (bamanankan)	Mali	Mandinga	Gambia, Senegal

Basa	Kamerun	Maninka	Guinea Conakry
Bayangi (Kenyango)	Kamerun	Maninkakan	Malí
Bozo (boso)	Malí	Mongo	Kongoko Errepublika Demokratikoa
Bete	Boli Kosta	Ngombe	Kongo
Bubi	Guinea Ecuatorial	Ngumba	Kamerun
Caboverdiano	Cabo Verde	Ngumbi (kombo)	Guinea Ecuatorial
Gaztelania	Guinea Ecuatorial	Nigeriako pidgin ingelesa	Nigeria
Kreol ingelesa	Kamerun	Portugués	Angola
Diola	Boli Kosta	Pular	Gambia, Malí, Senegal, Guinea Conakry
Duala	Kamerun	Senufo	Malí
Edo	Nigeria	Serere sine	Senegal
Empongompongo (mboh)	Kamerun	Songhay (songái)	Malí
Entomba (ntomba)	Kamerun	Soninke	Malí
Ewondo	Kamerun	Susu	Guinea Conakry
Fang	Guinea Ecuatorial	Tamazight	Argelia, Maroko
Fante	Ghana	Tuba	Kongoko Errepublika Demokratikoa
Fe'fe' (bamileke)	Kamerun	Tunen (mbanen)	Kamerun
Frantsesa	Argelia, Benín, Burkina Faso, Kamerun, Congo, R.D. Kongo, Guinea Conakry, Malí, Maroko, Senegal	Wolof	Senegal
Gun (goun goun)	Benín	Yombe	Congo
		Yoruba	Benin, Nigeria

Taula hauei gainbegiratu bat emanez argi ikusten da etorkin gehien Amerikatik etorri den arren (%48,7) kontinente horretako hizkuntza aniztasuna ez dela gehiegi islatzen gure laginean. Bost hizkuntza soilik identifikatu ditugu, garai bateko metropo- liek eramandakoez gain amerikar etorkinen artean. Europarrak dira bigarren multzoa etorkin kopuruari dagokionean (%29,4). Eta haiek ekarritako hizkuntzak 29. Oro har Europan 225 bat hizkuntza (Barreña et al. 2005) baldin badaude gure laginak %10 edo ordezkaturiko luke. Afrikar jatorriko etorkinak ez dira hain ugariak (18,1), baina hizkuntza kopuruari dagokionez oso da handia Afrikar etorkinek gurera ekarri duten hizkuntza ezberdinen kopurua: 52 hizkuntza ezberdin identifikatu dira Afrikar jatorriko

etorkinen artean. Asiako etorkinak osatzen duten multzoa ez da handia (%3,8) baina hala ere 14 hizkuntza ezberdin dira jatorri horretakoak: Nolanahi ere Asian (1.900 hizkuntza) eta Ozeano Barean (1.100 hizkuntza) dagoen hizkuntza aberastasun izugarriak (Marti et al, 2006: 81) ordezkapen ahula dauka Euskal Herriko etorkinen artean, oraingoz behintzat.

Gure artean bizi diren 150.000 luze etorkin horien lehen hizkuntzak zeintzuk diren badakigu. Soziologikoki argazki interesgarria da. Etorkin hauen jatorrizko hizkuntza gaztelania edo espainiera ez bada, gutxienez elebidunak dira denak, eta gehienak eleanitzak. Ez da abiapuntu txarra norbanakoaren gaitasunei begiraturaz gero. Baina gure gizartean ia erabat ezkutuan geratzen den kultur aberastasuna da hau. Egia da etorkinen proportzioa ez dela oso handia oraindik (% 6,1 EAEn <http://www.ikuspegi.org/es/2009/10/31>), eta haietako erdiak espainieraren Amerikako aldakiren bat hitz egiten duenez, gaztelaniaz bizi den populazioaren parte bihurtzen direla. Nolanahi ere, beste zenbait kultur ekoizpen ikustarazteak merezi duen bezala, bertan dugun hizkuntza ondare izugarria, (100 hizkuntza ezberdinetik gora alajaina!) agerrazteko ekimen gehiago behar lirateke.

3.2. Eleaniztasuna eskolan

Lehen esan dugu hizkuntza asko jakitea, gaurko gizartean geroz eta gehiago balio duen altxorra dela, Eskolak eleanitzak bihurtu nahi dira belaunaldi berriak eleanitzak izan daitezen. Hauxe da Europako Kontseiluaren gomendioa, eta hauxe da gure eskolan eta hezkuntza-arduradunen ahotik ere hitzetik hortzera entzuten duguna.

Elebidun edo eleanitz zeri deitzen diogun jakitea ere ez dago sobera. Europako Portfolio egitasmoan hizkuntza baten erabiltzeko edozein gaitasun, apala izan arren balioztatu beharrekoa dela esaten da. Kontua ez da gaitasunaren ziurtagiria duten hiztunak soilik kontuan hartzea, kontua, norbanako bakoitzak bere biografian zehar izan duen hizkuntza ezberdinekiko harremana eta hizkuntza horien erabiltzeko gaitasuna, edozein mailatakoa izanik ere kontuan hartzekoa dela jakinaraztea, baizik.

Eskola eleanitzak nahi direla esaten denean ere, bi multzo nagusi egin ditzakegu eskola horien helburu eta izaerari begiratzen badiegu. Eskoletako egoera bera ere, ez da berdina izaten. Batzutan, immigrazioa kontuan hartuz, jatorri ezberdineko ikasleak biltzen ditu eskolak, eta ikasle etorkinek beren testuingurutik, etxeko/familiako/jatorrizko herrialdeko hizkuntza bat edo gehiago dakizkite. Horrez gain, gurean beste bi hizkuntza behintzat aurkituko dituzte eskolan. Bestetan, ikasleen jatorria kontuan hartu gabe, eskolak berak gutxienez hiru hizkuntza erabiltzen eta irakasten ditu. Gure erkidegoan, gehien bat, bertako biak, gehi ingelesa.

Badakigu EAEko eskolaume etorkinen kopurua ez dela oso handia (%3, isei/ivei. 2006), halere, kopuruak gorantz egiten ari dira, eta gutxi diren bitartean egin behar litzateke ahalegina, ikerketan, egitasmo ezberdinen saiakeran, eta daukagun egoera erronka bihurtu eta irtenbide aproposagoak bilatzeko.

Bi bide nagusitan bildu ditzakegu irakaskuntza eleanitza indartzeko erabilitako programak. Evlang /Jaling (Candelier, 2003, Noguerol, 2001) deituriko proposamenak batetik, eta hizkuntzen irakaskuntza bateratua deitu izan dena, bestetik. Lehenengoa, nagusiki, eskolako ahalegina ikasle etorkinek dakartzaten hizkuntzak agerian jarri eta haiek hitz egiten dituzten ikasleen errekonozimendutik abiatzen da. Hizkuntza ezber-

dinen erabileran saio sinbolikoak baina errespetuzkoak dira, eta oinarria norbana-koaren jatorrizko hizkuntza eta kulturaren balorazioa agerian jartzea da. Hiztegitxoak, pertsona eta lekuen izenak, esamolde erabilgarriak, eta lekuan-lekuko bitartekoen arabera molde oso ezberdinetako saioak egiten dira, era mugatuan bederen beste hizkuntza horien erabilera bultzatzen delarik. Nolanahi ere, eskolako hizkuntzak, bat zein bi izan, irakaskuntzaren ardatza izaten jarraitzen du ikasle guztientzat. Halere, badu garrantzirik jarrera eta jokamolde honek edozein hizkuntzenganako errespetua eta miresmena, haiek hitz egiten dituztenengana heltzen baita.

Beste bidea, hizkuntzen irakaskuntza bateratua, aspalditik gomendatu (Roulet, 1980) izan den arren, poliki ari da gauzatzen. Eskolan irakatsi nahi diren hizkuntzak, bi, hiru nahiz gehiago izan, modu bateratuan egin beharrak didaktikaren eremu asko ukitzen ditu, eta urtetako ikerketa eta saioen premian dagoen alorra da. Egile batzuk (Dolz et al, 2009) lauzpabost alor aipatzen dituzte irakaskuntza hau behar bezala bideratzeko: 1) Ukipenean dauden (irakasten diren) hizkuntzen egoera edo estatusa kontuan hartuz haien eskolako presentzia nolakoa/zenbatekoa izan behar duen erabakia; 2) irakaslearen prestakuntza, eleanitza izateaz gain, honelako lan batek eskatzen duen ezagutza linguistiko eta didaktikoak kontuan hartuz; 3) ikasleen gaitasunak aztertu eta ezagutzeko baliabide aproposak garatzea, izan ere, ikasleek zer dakiten, zer ikasi duten eta zer ez jakitea ezinbestekoa baita egitasmo eleanitzak arrakastatsu bihurtzeko; 4) baliabide didaktikoak, alegia, eskolak bere interbentziorako dituen bitartekoak ezinbestean garatu behar dira modu berezian hiru edo hizkuntza gehiagorekin eskola osoak funtzionatuko badu; eta jakina, hemen sartzen dira baita ere teknologia berriek, ikus-entzunezkoak eta informatikoak eskura jartzen dituzten bitartekoen garrantzia ere eta haien erabili beharra.

Eleaniztasuna desiragarria izan arren, esan behar da oraindik gutxi ezagutu eta gutxiago praktikatzen dela, aukera bertan izan arren. Bestalde, beste gauza asko bezala, eskolaren esku soilik uzteko arriskua dago, eta horrelako erronka, jakina, gizarte osoarena izan behar du. Bestela, eleaniztasuna arazoa besterik ez da izango.

4. BIBLIOGRAFIA ERREFERENTZIAK

BARREÑA, Andoni; URANGA, Belen; IDIAZABAL, Itziar; AMORRORTU, Esti; ORTEGA, Ane. (2005) *Europako Hizkuntzak*, Bilbao: UNESCO ETXEA, AMARAUNA, ISBN: 13: 978-84-934779-0-5.

BARREÑA, A. (2003) Wurm, S. A. (ed.) (2001): *Atlas of the World's Languages in Danger of Disappearing*. Unesco Publishing. *Revista Internacional de Estudios Vascos* 47-1, 200-203.

CANDELIER, M. (2003) *Janua Linguarum. La porte des langues. EVLANG- L'introduction de l'éveil aux langues dans le currículo*. Strasbourg : Éditions du Conseil de l'Europe

COUNCIL OF EUROPE (2001). *Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment*. Cambridge: CUP.

DOLZ, Joaquim; GAGNON, Roxane; MOSQUERA, Salvador (2009). La didáctica de las lenguas: una disciplina en proceso de construcción. *Didáctica. Lengua y literatura*, 21, 117-141.

EUROPAKO KONTSEILUA (2002). *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako. Europako Erreferentzi Marko Bateratua*.

—. *Hizkuntzen Portfolio Europarra* (HPE)

MARTÍ Felix; ORTEGA, Paul; IDIAZABAL, Itziar; BARREÑA, Andoni; JUARISTI, Patxi; JUNYENT, Carme; URANGA, Belen; AMORRORTU, Esti (Ed.) (2005). *Words and Worlds. World Language Review*: Clevedon U.K.: Multilingual Matters, ISBN: 1-85359-827-5.

Euskaraz: *Hizkuntzen mundua. Munduko hikuntzei buruzko txostena*. UPV-EHU Argitalpen Zerbitzua/Servicio Editorial. 2005, ISBN: 84-8373-817-1.

Frantsesez: *Un monde de paroles, paroles du monde. Étude sur les langues du monde*, Paris : L'Harmattan, 2006. ISBN : 2-296-01114-4

Gaztelaniaz: *Palabras y mundos. Informe sobre las lenguas del mundo*, Barcelona: Icaria, 2006 ISBN: 84-7426-889-3

Errusieraz: (2006) Kalmik State University ISBN 5-230-20276-9

NOGUEROL, A. (2001) *Cómo tratar la diversidad lingüística y cultural. Educación primaria. Orientaciones y recursos (6-12 años)*, Barcelona: CISS-Praxis.

ROULET, Edit (1980): *Langue maternelle et langue seconde: vers une pédagogie intégrée*. Paris, Hatier

UNESCO (2009) UNESCO *Interactive Atlas of the World's Languages in Danger* . UNESCO. 2009. <http://www.unesco.org/culture/>. Retrieved 11 April 2009

URANGA, Belen; AIERDI, Xabier; IDIAZABAL, Itziar; BARREÑA, Andoni; AMORRORTU, Esti; ORTEGA, Ane (2008). *Hizkuntzak eta immigrazioa. Lenguas e inmigración*, Bilbao: IKUSPEGI, Ama-rauna UNESCO Etxea, Cátedra UNESCO Patrimonio Lingüístico. ISBN: 978-84-9860-086-5.

URANGA, Belen; MARAÑA, Maider (ed.) (2008) *El futuro de las lenguas. Diversidad frente a uniformidad*. Madrid: Catarata.